

ALBOAN GAZTE SAREA



Mundua eraldatzeko apustua hartu duten gazte talde desberdinez osatutako sare bat gara. ALBOANen kanpainen edukiekin trebatzen gara ekintzak burutzeko eta mobilizatzeke, parte-hartzea, kulturartekotasuna, migrazio eta errefuxioa, hezkidetzeta, desperekotasuna, naturaren ondasunen gaineko kontrola, eta gatazken konponketa baketsua bezalako gaietan, betiere gure gizartea Hegoaldeko prozesuekin lotuz.



ALBOAN
Jesuitek bultzatutako Fundazioa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

ALBOAN Gazte Sarea ikasturtean zehar hiru trebakuntza eta parte-hartze esparrutan aritzen da:

- Talde bakoitzarekin formakuntza eta mobilizazioetarako saioetan.
- Jarduera kolektiboetan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa mailan.
- Gazte Sareko Urteroko Topaketan.



Gazte Sareko Topaketara Sarean parte hartzen duten taldeetako hezitzaile eta gazteen ordezkariak joaten dira. Helburua boluntarioratza esperientziak komunean jartzea eta elkarrekin eduki eta ekintza eraginkorrek burutzeko tresnetan sakontzea da.

Horrekin batera, Gazte Sareak **Begirale Talde** bat du, 18 eta 25 urte bitarteko gazte osatuta. Talde honek Urteroko Topaketak antolatu eta dinamizatzen ditu, baita lurralde desberdinetan burutzen diren jarduera desberdinak ere. Horretarako ikasturtean zehar Begirale Taldeak ALBOANek lagundutako trebakuntza prozesu bat jarraitzen du.

Helburuak



- Izaera kritikoa sustatzea gazteen artean, mundu globalaren errealitatea euren gana hurbilduz era berean gure inguru lokalean gertatzen denarekin harremanduz.
- Gazteei trebatze espazio bat eskaintzea, eta parte-hartzerako eta gizarte mobilizatorako tresnen eskuratzeko erraztea.
- Mobilizazio eta intzidentzia ekintzak abian jartzea, ALBOANek bultzatutako elkartasun eta sentzibilizazio kanpainekin bat datozenak.
- Sare gune bat sortzea, non gazte taldeek euren giza eraldaketarako antzeko interesak dituzten beste batzuekin topa daitezkeen eta euren boluntarioratza eta elkartasun esperientziak elkarbanatu eta zabaltu ditzaketen.

Zer eskaintzen diegu Gazte Sarean parte hartzen duten taldeei?



- Taldeetako hezitzaileei trebakuntza, jarraipena eta aholkularitza ALBOANek jorratzen dituen gaietan.
- Gai desberdinetan sakontzeko materialak, talde barruan zein kanpoan gai horiek lantzeko aukera izan dezaten modu autonomoan zein ALBOANen laguntzarekin.
- Hegoaldeko herrialdeetako pertsonen testigantza zuzenak.
- Kanpaina eta mobilizazio ekintzetan parte hartzeko proposamenak.
- Lana sarean egin ahal izatea eta topaketarako gune eta jarduerak.

Gazte Sareari buruzko informazio gehiago eskuragarri dago gure Sare Sozialetan:



@alboanGazteSarea



@alboangaztesarea



educacion@alboan.org

Kontaktua